

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Inflaktor-a denda fisikoetan eta online dendetan eros daiteke. Denda fisikoen artean, farmaziak, ortopediak eta supermerkatu espezifiko batzuk, hala nola, *El Corte Inglés*.

ORTOPEDIA
OBEA-2



Horretaz aparte, farmaziek, hospitaleek eta egoitzek, eskaera handiak egin ditzakete inongo problemarik gabe. Hau gauzatzeko, gure enpresarekin kontaktu zuzenean jarriko dira; kopurua eta prezioa zehazteko.

Gure web orria ez da gure produktua erosteko bide bakarra, beste web orrietan eros daiteke ere, hala nola, Amazon-en. Nahiz eta bertan saldu ere, ez da gure kondizio berdinetan salduko, izan ere, ez dute edukiko gure web orriak eskaintzen duen bi urteko garantia izango (denda bakoitzak erabakitzen du garantia) eta prezio desberdina izango du.

Gure web orrian produktuaren inguruko informazio guztia ematen dugu, hala nola, deskontuak, nola erabili, nola programatu, gure zerbitzu teknikoa.

Pertsona helduei zuzenduta dagoenez, pertsona helduek haien eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten komunikabideen bitartez egingo dugu ezaguna gure produktua.

Hasteko, *El Diario Vasco* egunkarian iragarki bat argitaratuko dugu, non produktuaren ezaugarri orokorrak aurkeztuko ditugu gurekin kontaktatzeko informazioarekin batera.

Era berean, EiTbN irratsaio bat egingo dugu nola funtzionatzen duen azalduz.

Azkenik, gure inguruko geriatrikoetan eta egoitzetan hitzaldi moduko batzuk egingo ditugu, gure bezeroak izango direnak produktuarekin lehenengo aldiz kontaktu zuzena izateko eta probatzeko.

